

NORANTZA

BEÑAT BIDART
AZIA ELKARTEKO KIDEA

«Gazteen bizitza sozialean sartzea da gure xede nagusia»

Duela bi urte sortua den Azia elkarteak lokal bat dauka Atarrantzeko Herriko Etxe zaharrean eta agerkari bat ere argitaratzen du. Zuberoako ekonomiaren arlo desberdinen aztertzeako bilkurak

horrela: hogei minutuz edozein gauzaz hitz egiten dugu, festez, maskaradaz, kirolaz, eta gero dute benetako galdera egiten. Baina nik ez diet galdera berezirik egiten. Lehenik hemengo dokumentuez interesatzen dira eta gero Aziaren lan eta xedeez galdetzen dute.

egiten ikusten gaituelako. Ene ustez, formula egokia aurkitu dugu. Zuberoan gazteok egoteko gogorik ez genuela esaten zen eta guk kontrako frogatu dugu. Herrian egoteko gogoia dugu eta horretarako tresnak erakitzten ditugu.

Herrietan bilkura andana bat egin duzue, nola bizi duzu hori?

Harridura eta poza gelditzen zaizkit lan hortatik. Horrenbeste jende bilkuretarantz etortzeko harridura sortu dit. Gaia industria zuen bilkura batean 30 gazte ikusteak kezkatzen gintuen eta, denbora berean, gure lan moldera gorde nahi genuen, hots, umore ona eta laño-tasuna. Jendeak etortzen segitzen du, lana seriozki eta umore onean

Gazte asko bilkuretan egoteak herrian bizitzeko motibazioa erakusten du?

Noski. Herri bakoitzean gazteak bildu ditugu eta bilkura publikoak prestatu ditugu. Bost edo sei gazte ari ziren horretan lanean eta uste dugu gazte andana batek esperientzia aberasgarria egin duela ekitaldi horien antolatzean, hala nola publikoan mintzatu eta ekonomia gai bat aztertu. Beren ikasketei esperientzia hau gehitu diete. Ohartu dira, gainera, etortzen ziren gazteak ideia eta bizi-modu berdietsuakok direla. Bestalde, gazte multzo baten aurrean industriad mintzatzera etorri den persona bere hizkuntzaren egokitzera behartua izan da.

Aurtengo xede nagusiak?

Hamar bat gazte enpresa baten eraikitzeko elementuez jabetu nahi ditugu, hots, eskolan ikasten ez diren beharrezko gauzez: aurrekontuen irakurketa, enpresa eraikitze-ko etapa, merkatu ikerketa, etab. Eta egunerokoa ahanztu gabe, lokala irekirik atxikitzea eta hemengo bizitzan gazteen inplikaraztea. Azia elkartearen helburu nagusia hemengo gizartearen gazteak inplikatzeko da, eta hor ez da ekonomia bakarrik. Gaztegoei dantzak erakatsi, eskubaloio edo pilota kursoak eman, kantu taldeak egin eta abarrek asmoa dugu. Gazteak bizitza sozialean sartzea da gure xede nagusia.



Allandé Etxart

Allandé Etxart

Azia elkarteak permanente izatea nola gertatu da?

Azia sei gazteren artean sortu genuen eta aspalditik langile baten hartzea pentsatzen genuen. Europako dirua lortu dugunean, lanpostuaren sortzea posible ikusi dugu. 1998ko udaran oraino seiak ginen eta nik Biologia Aplikatuak ikasketak bukatuak nituen. Azia proiektuan gogor sinesten nuen, denbora luzea pasatzen nuen horretan, eta, beste kandidaturik ez, neure burua aurkeztu dut. Erabaki personala eta kolektiboa izan da. Kanpoko norbait, nahiz diploma askorekin, baino taldeko norbait nahiago genuen, oso motibatua garelako.

Elkartearan lan edo emaitzetan aldekerarik ekarri du langileak?

Lehenik, disponibilitatea ekarri du eta lokal bat irekirik egotea. Edozein momentotan gazteak etortzen ahal dira eta norbait aurkitzen dute. Zenbat jende etorri den ikusiz, behar bati erantzuten dela nabari da.

Bisita horien guzuzien gakoia zertan da?

Lehenik, umore onean, eta, ge-

ro, ni gazte izatean. Gazte batendako errazago da beste gazte baten ikustera joatea egitura ofizial bateko permanentearengana baino. Egiturretan galderak egiten dituzte eta gazteak galderari erantzuteko gogorik ez du gehienetan. Etortzen diren gazte gehienak ezagutzen ditut eta xehetasun bila etortzen dira, ikasketak, udarako lan, Minitel, etab. direla. Usuenik gertatzen da



Txillardegí

Cui prodest bis

Ez dugu ulertu. Eta ez zaigu lehenengo aldiz gertatu. Zergatik orain paper horiek guztiak kalera? Noren zerbitzuan? Lizarra-Garazi giroaren alde dator erabakia? Ez dirudi. Gehehen ez dugu ulertu. Badirudi askoz zailagoa izango dela orain EHren proposametan sinestea. HB bereziki morroi agertu baita, larri gorri-gorrian. Zertarako Arnaldorekin mintzatu eta akordiotara initsiko?

Ez omen dugu «oinzezko» prozesoa zertan ulertu behar. Badakitenek badakite, eta kito. Gure garaian ere hau entuzten genuen: «Doctores tiene la Santa Iglesia».

Erabaki larri hau eta beste mila erabaki larri aspaldi honetan hartu dituztenek konfiantza merezi omen dute. Nork jarri eta jartzen ditu hemen presoak, hilak, gosc-greba miresgarriak? Nor bizi da katakunbat? Nork eman dizkio gure borrokarik gizaetan eta heroismo-maila? Politikagintza ofiziala mila merkeketan usteldu dutenek ote? Otoi! Nork ekarri du herri honetara prestutasun politikoak?

Erabaki drastiko hauek hartzen dituzten berrek. Guk ez dakigu. Baina berek bai. Txeki zuria sinatzeko eskatzen zaigu berriro. Ez omen dago beste biderik. Gure arteko batzuek, ordea, ez horren gutxi, nik uste, halako mespretxu-kutsua somatzen dute jokabide horietan. Berriro ere «Doctores» haren kutsua somatzen dute. Eta jokabide politikoko baino, jokabide moralaltasuna neurtzen ari garelako somatzen dute.

Eta honek guztiak despolitizazio azkarra dakarrela abertzale munduan. Eta are geronen etxean ere, etsipena: «Gure iritzia bost axola goikoek».

Garaia da, agian, hau senditzen dugunok argi eta garbi adierazteko. «Iodo por el pueblo, pero sin el pueblo!» Nork esan zuen hori?

Aitizindariak

MARIANO MENDIGATXA
1 8 3 2 1 9 1 8



Ene jain ona:
Heltu zaitad horren tarjeta; ene familiarri ezazu onki hande urdutu, ekus izan munduak, zer erraiten daitadan...
BIDANKOTE

Bazion aspaldixko bi pentsamen du nazkala buruian sarstruk; batak erraitan zaitadan:
DON RESURREKZION ASERIK DIOK YIRE USKARAZ, EZ DAZAK ESKRIBI HOBORO...
URDUTU • IDURITU • BRJEN • GURKITU • DILTU • BIDALE • ALTXATZUK • IKUTUAN • HOBORO • GELUGO • NOLA HASI KOLA F.I.N.

... eta erraiten daitad, erran dazaudala, ez badake Parisen erden paperik eskrubitato, DUK KEMENTIK OLTEN DAZUDALA, paper eta estalki, eskrubi daztaduh altxatruak.

... eta berziak erraiten zaitadan:
ETZAIALA XINETS KORRI, AZKUE JEINA EZ DUK SEKULA ASPERTEN YIRE ESKRIBI MOLDIAZ...
...EMONIK BAI DAGO LANARI, OROBAT NOLA ASTOA MAKILKADIA!
DEUS HOBORO OSAGASU eta berze batar!